# UDAKO OPORRAK 2025 - ERRENTEABENTURA
## IZENA EMATEKO ORRIA

**Zenbakia** ______

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1. abizena** | | **2. abizena** | |
| **Izena** | | **Neska** ○ **Mutila** ○ **Ez-bitarra** ○ | |
| **Haurraren jaioteguna** | | | |
| **Helbidea** | | | |
| **Telefonoak** | | **2.Tel .** | **3.Tel.** |
| **E-mail** | | **Ikastetxea:** | |
| **Harremanetarako hizkuntza** | ○ Euskara ○ Ele bitan | | |
| **Zenbatekoa haur bakoitzeko** | 66,30 € | | |

**Udako oporrak 2025 programaren zenbatekoa kargatzeko kontu korronte datuak**

| | IBAN | Entitatea | Bulegoa | DK | K/k edo libreta zk |
|---|---|---|---|---|---|
| **K/k korronte edo libretaren zk.** | | | | | |

| | |
|---|---|
| **Kontuaren titularra** | |
| **NAN edo bestelako identifikazio agiriren bat** | |
| **Kontu korronte zenbakirik izanez ez gero, adierazi mesedez** | ○ **Ez daukat kontu korronte zenbakirik** |

**DATU MEDIKUAK**

**Osasun Txartel zk:** ______

| | BAI | EZ |
|---|---|---|
| Haurrak laguntza berezirik behar al du? | ○ | ○ |
| Haurrak gaixotasun edo afekzioren bat al du? | ○ | ○ |
| Mediku tratamenduren bat jarraitzen al du? | ○ | ○ |
| Alergikoa al da? | ○ | ○ |
| Adieraz ezazu tratamendua, oharrak etabar.: | | |

## BAIMENA

[ ] Jaunak/Andereak,

NAN [ ] zenbakidunak, [ ] haurraren [ ]

naizenez, **baimena ematen diot** Errenteriako "UDAKO OPORRAK 2025" programan parte har dezan. Era berean, baimena ematen dut larrialdi egoeretan beharrezko erabaki mediku-kirurgikoak hartzeko; betiere, dagokion medikuaren zuzendaritzapean.

☐ **BAI baimena ematen diot** "UDAKO OPORRAK 2025" programaren antolakuntzari, nire semeari/alabari programa horretan zehar **argazki eta bideo grabaketak egiteko**. *

☐ **EZ, ez diot baimenik ematen.**

* Esanbidezko baimena. Argazkiak eta bideo grabaketa jarduera dibulgatze aldera egingo dira soil-soilik

## IZENA EMATEKO IRIZPIDEAK

- Txanda 10 egunekoa izango da (astelehenetik ostiralera)
  - **Uztailak 7 - 18**
- Plazak mugatuak dira
- Errenteabenturan inoiz parte hartu ez duenak lehentasuna izango du
- Izen-emateek plaza kopurua gainditzen badute, zozketa egingo da
- Izen-ematea egitean ID zenbakia eskuratuko da. Zozketa egin behar izanez gero, zenbaki hau erabiliko da.
- Saioak astelehenetik ostiralera izango dira, goizez zein arratsaldez.
- Egun batzuetan etxera joango dira bazkaltzera eta beste batzuetan bazkaria beraiek eraman beharko dute. Egunak horrela banatuko dira:
  - Astelehena eta asteazkena egun osoa jarraian 9:30etatik 17:30etara (bazkaria eraman behar dute)
  - Astearte eta osteguna: 9:30etatik 13:30etara eta 16:00etatik 19:00etara (etxean bazkaltzen dute)
  - Ostirala 9:30etatik 16:30etara (bazkaria eraman behar dute)
- Gehienez 12 haurreko taldeak izango dira eta 96 plaza eskaintzen dira.
- Elkartze puntua Pilotari kalea izango da
- Burutuko diren ekintzen inguruko informazioa bileran emango da. Bileran taldeak ID zenbakiarekin agertuko dira.

## IZEN-EMATEA

- **TELEMATIKOKI** martxoaren 10etik 30era (biak barne) **gazteria.errenteria.eus** web orriaren bitartez
- **PRESENTZIALKI** ZU! Zure Udala (Herriko plaza z./g.) - (Aldakoenea, 2 Beraun) martxoaren 17tik 28ra (biak barne). **Ezinbestekoa aurretiko hitzordua martxoaren 13tik aurrera 943449600 edo 010 telefonoetan**

## AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- **Izen-emate orria** beteta eta sinatuta
- Haurraren **osasun txartela**
- **Kontu korronte titulartasun ziurtagiria**

**Errenterian erroldatuta ez badago:**

- **Ikastetxeko ziurtagiria (2024-2025 ikasturtea)**, haurra Errenteriako ikastetxe batean ikasten ari bada
- **Familia liburua** ez badago herriko ikastetxe batean matrikulatuta

**Gaitasun ekonomikoaren arabera prezio publikoak egokitzeko eskaera egingo bada:**

- **Familia liburuaren** kopia eta **eskaera orria** beteta eta sinatuta (gaitasun ekonomikoaren arabera egokitzeko tramitea soilik plaza esleitu zaien pertsonei tramitatuko zaie)

Egokitzeko baldintzak ikusteko, eskaera orria eskuratzeko eta eskaera telematikoa egiteko aukera, esteka honetan: https://errenteria.eus/zu/progresibitatea/

## OHARRAK

- *Izen-ematea telematikoki eginez gero, ez da bulegora dokumentaziorik eraman beharrik izango*
- *ZU! zerbitzura edozeinek eraman ditzake inprimakiak. Ez badago orria guztiz osatuta eta beharrezko dokumentazioa atxikita, ez dira inprimakiak jasoko.*
- *Behin eskaera eginda, norberak aplikazioaren bitartez aldaketak egiteko aukera izango du (datu pertsonalak, txanda, gunea..), betiere izen-emate epe barruan. Epe hori eta gero ez da onartuko aldaketarik.*
- *zena ematerakoan ez da ordaindu beharko. Aurrerago, adierazitako kontu korronte zenbakian kobratuko da, betiere, dagokion datan uko egiten ez bada. Hasieran onetsitako ordenantza fiskalean ezarritako prezioak. Prezio publikoa gaitasun ekonomikoaren arabera egokitu daiteke; eskaera izen-ematearekin batera egin beharko da izen-emate epean.*

## ZOZKETA

- Zozketa beharko balitz **apirilaren 3an** izango da, **goizeko 10:00etan**
- Behin-behineko zerrendak**: apirilaren 4an, 15:00etatik aurrera** gazteria.errenteria.eus webgunean.
- Itxaron zerrendak eratuko dira. Uko egiteko epea amaitu ondoren, plaza libreak geratuz gero, telefonoz deituko da eta izen-ematean adierazitako e-mailera mezu bat helaraziko da. 24 orduko epean e-mail horri erantzun beharko zaio, parte hartu nahi den ala ez adieraziz. Epe horretan ez bada mezurik jasotzen, plaza galduko da eta hurrengoari egokituko zaio.

## UKO EGITEKO EPEA

- Apirilaren 7tik 23ra
- **E-mail** bat bidali beharko da gazteria@errenteria.eus helbidera haurraren ID-a edo izen-abizenak adieraziz.
- Behin betiko zerrenda argitaratu ondoren (maiatzaren 9an) aurkeztutako baja eskaerei, dagokien **tarifa kobratuko zaie**. Salbuetsita geratzeko aukera aztertuko da ondorengo egoeretan:
    - Gaixotasuna, betiere medikuaren egiaztagiriaren bidez egiaztatzen bada
    - Nahitaezko lekualdaketa, behar bezala dokumentatuta badago
    - Ez-ohiko egoerak, behar bezala dokumentatuta badago

## INFORMAZIO BILERA

- **Ekainak 9,** astelehena, 17:30ean Niessen Kulturgunean

AITORTZEN DU sinatzaileak, bere ardurapean, adierazi dituen datuak egiazkoak, zehatzak, osoak eta eguneratuak direla.
DATUEN BABESA. Datu pertsonalak babestearen inguruan indarrean dauden arauei jarraiki, hau adierazten dizugu: inprimaki honetan jasotako datuak egiaztatu edo osatu ahal izango dira beste administrazio publiko batzuei kontsulta eginda. Datuok Udalak tratatuko ditu bere eskuduntzen araberako eginkizunak eta zerbitzuak aurrera eramateko. Udalak zure datuak legearen arabera tratatuko ditu, beharrezko segurtasun neurriak hartuz eta hirugarrenei lagapenak legeak aurreikusitako kasuetan bakarrik burutuz. Informazio gehiagorako kontsutatu gure pribatasun politika: https://errenteria.eus/pribatutasun-politika/. Era berean, jakinarazten dizugu datuak atzitu, zuzendu, ezereztu, berauen aurka agertu, tratamentua mugatu eta datuen eramangarritasunari buruz dagozkizun eskubideak baliatzeko aukera duzula, idatziz, telematikoki, aurrez aurre edo posta arruntaz Udalera zuzenduz; Herriko Plaza z/g 20100 Errenteria. Azkenik, beste pertsona fisiko batzuen datuak helarazten baldin badituzu, pertsona horiei aurreko guztiaren berri eman beharko diezu.

Errenteria, ______ (a)    Sinadura